

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elizalde kontseilaria Lizarran bildu da Ega Eskualdeko toki-ordezkariekin

Departamentuaren politikek eskualde honi nola eragiten dioten aztertu du, neurri handi batean biztanleek hortik alde egiten baitute

Asteartea, 2018.eko azaroak 20

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria, Isabel Elizalde, gaur goizean bildu da etorkizuneko Ega eskualdeko toki-erakundeetako ordezkariekin, Montejurra Mankomunitatearen egoitzan, Lizarran, Departamentuak legealdian zehar garatutako politikak eta Nasuvinsak eskualde-mailan eskainitako zerbitzuak aztertzeko helburuarekin; hots, bereziki, Lursareak, lurralde eta iraunkortasun agentziak, garatutako jarduerak.



Kontseilaria gainerako parte-hartzaileekin.

Elizalde lurralde horretan bilerak egiten ari da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma ezarritako eskualde berrietako ordezkariekin. Lege-proiektu horrek Nafarroako Kontseiluaren abala jaso du, eta urtea amaitu aurretik Nafarroako Parlamentuan eztabaidatuko dute.

Bileran, hogeitabat lagun bildu dira, eta bertan parte hartu dute Toki Administrazio zuzendari nagusia den Xabi Lasak eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak, Eva Garciak, gehi Lursareako, lurralde eta iraunkortasun agentziako, eta Teder Elkarteko ordezkariak ere. Besteak beste, bertan izan dira Montejurrako Mankomunitateko lehendakariordea eta Udal hauetako ordezkariak: Abartzutza, Aberin, Ameskoabarrena, Andosilla, Los Arcos, Arellano, Arroitz, Barbarin, Cárcar, Lizarra, Gesalatz, Legaria, Lodosa, Lukin, Mendabia, Viana, Villatuerta eta Deierri.

Kontseilariak azpimarratu du eskualde honetako udalerririk asko jendez husten ari direla, errealitate hori areagotu egin baita azken hamar urtetan. Modu horretan, gogoratu du Nafarroa osoan kilometro karratu bakoitzeko 62 biztanle badaude, Lizarraldeko batez besteko dentsitatea 35,2



biztanlekoa dela. “Kopuru horrek errealitate oso ezberdina ezkutatzen du. Lizarran kilometro karratu bakoitzeko 890 biztanle badaude, 15 bat herritan, tartean, Piedramillera, Gesalatz edo Aguilar Kodes, kilometro karratu bakoitzeko 10 biztanletik beherako dentsitatea dute. Beraz, horrek politika sektorialak errealitate hain desberdinera egokitzea behartzen gaitu, herritar guztiei zerbitzu publikoak izateko eskubidea bermatzearen”.

Elizalde kontseilaria, hitzaldian zehar. Harekin batera, García eta Lasa.

Behin bilera amaituta, parte-hartzaileak Vasco-Navarro trenbide berdearen 0 Kilometrora joan dira, dagoeneko erabat egokituta baitago ekainean azken zatia egokitze lanak amaitu ondoren. Era berean, Larruginen Ostatua bisitatu ahal izan dute, iaz inauguratutako eta Landa Garapeneko Programaren barruan finantzaturiko proiektua.

Ega eskualdea

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatan hamabi eskualde sortu nahi ditu Nafarroan, eta horien artean Ega eskualdea, 58.514 biztanle eta 66 herrirekin. Tokiko erakunde berriak proposatzen du, tartean dauden Udalek horrela erabakitzen badute, Ega eskualdea bitan zatitzea: Lizarrako erribera eta Montejurra.

Lizarrako Erribera: Andosilla, Aras, Carcar, Elizagorria; Lerin, Lodosa, Mendabia, San Adrian, Sartaguda, Sesma eta Viana.

Montejurra: Abaigar, Abartzuza, Aberin, Aguilar Kodes, Allin, Allo, Ameskoabarrena, Antzin, Aranaratxe, Arellano, Armañanzas, Arroitz, Aiegi, Azuelo, Barbarin, Bargota, Cabredo, Desoio, Deikaztelu, El Busto, Esprontzeda, Lizarra, Etaio, Eulate, Genevilla, Gesalatz, Iguzkitza, Lana, Lapoblación, Larraona, Legaria, Lezaun, Los Arcos, Lukin, Marañón, Mendaza, Metauten, Mirafuentes, Morentin, Mues, Murieta, Nazar, Oko, Olexoa, Oteiza, Piedramillera, Jaitz, Santsol, Sorlada, Torralba del Río, Torres del Río, Deierrri, Villamayor de Monjardín, Villatuerta eta Zuñiqa.